

## Entrescritores.com orriak idazlanak argitaratzeko aukera eskaintzen du

**Bere idazlana argitara ematea izan ohi da idazlearen buruhaustea. Hori lortzeko bide berriak ari dira jorrotzen Interneten. Entrescritores.com plataformak literatur lana argitara eman eta irakurleek gustukoa badute, argitaletxe batek publikatzeko aukera eskaintzen die autore berriei.**

XOLE ARAMENDI

Autopublikazio plataforma da entrescritores.com. Lehenik e-book formatuan eta ondoren liburu euskarrian literatur lanak argitara emateko aukera eskaintzen du. Prozesua ondorengoa da: autoreak bere lana idatzi eta argitara ematen du sarean. Irakurleak testua deskargatu, irakurri eta baloratu egiten du. Ondoren, puntuazio gehien eskuratu duten lanen artean bat aukeratu eta argitara emango du argitaletxe batek.

"Gure orrian erregistratu ondoren, idazleak word formatuan idatzitako testua bidaltzen du. Guk pdf edo e-pub formatua sortzen dugu. Era horretan, idazlana ordenagailuan edo e-bookean irakur daiteke. Argitaletxeak argitaratu ondoren, paperean edo e-book formatuan», azaldu du Idoia Sotok, Lotura enpresako kideak. Aipatu enpresa arduratu da proiektuaren garapen teknologikoaz.

Plataformaren garapen teknologikoaz arduratu da Lotura enpresa. "Bezero batek luzatu zigun ideia. Irakurleen iritzien bitartez literatur lana filtratzearen beharra planteatu zigun. Argitaletxeak gainezka daude eta idazlanak hor geratzen dira, aurrera egin ezinik», kontatu du.

Datorren martxoan emango dira sariak. Generoaren arabera zazpi ranking desberdin daude. Euskarazko eta katalanezko lanek sail propioa dute. Euskarazko lanen kasuan, eleberriak bakarrik aurkez daitezke. Gaumin argitaletxeak emango du argitara aukeratutako lana.

Hiru erpinak, autorea, irakurlea eta editorea, ditu kontuan plataformak. "Irakurleak badaki aurrez argitara eman gabeko idazlanak irakurriko dituela. Beste plataforma batzuetan ez da hori gertatzen, idazle kontsokratuekin batera daude idazle hasi berriak. Modu horretan, gurean, literatura oso gogokoa duen irakurleak kritikari lana egin dezake, lanen aukeraketan parte hartu, eta autore berrien aldeko apustua egin. Irakurle bezala oso garrantzitsua da jokatzeko duzun papera».

Argitaletxeei dagokienez, ohiko jardueran ez daukate irakurleen iritzirik. "Interneti esker, aurrez dakite argitara ematera doazen lanek funtzionatuko duten ala ez, irakurleen iritzi zuzena jasotzen dutelako», nabarmendu du abantailen artean.

Eta gauza bera gertatzen zaio idazleari; bere lanaren gaineko hainbat pertsonaren iritzia jasotzen du. "Irakurleek iritzia ematea baliagarria den jakingo dugu libururen bat argitara ematen bada, bestela esan nahiko du erakutsitako kalitate maila ez dela nahikoa izan. Gerta liteke».

Literatur plataformako irakurlea berezia da Sotoren esanetan. "Oso gustukoa izan behar du irakurtzea. Horrez gain, iritzia ematearen jokoan sartzea, kritikari lanak eginez».

Interneten ugariak dira autopublikazio plataformak. "Idazleek duten irteera da, oso zaila baita argialetxe batek zure lana ateratzea. Batetik bestera ate joka zabilta eta askotan ez duzu inork irakurtzerik lortzen, hainbestekoa baita jasotzen duten lan kopurua. Argialetxeko editoreak zure lana gustukoa izatea lortu behar duzu. Horrez gain, noski, e-booka ezin ahaztu. Liburua ez da hainbeste saltzen. Emandako aldaketen ondorioz, noraezean dago sektorea. Diskoaren industriarekin gertatu zen lehen eta orain liburuaren txanda da. Erabat digitala izan daitekeen produktua da. Irakurketa digitala da eta gehiagora joango da. Azken bi urteotan sekulakoa izan da e-book eta tableten salmentarekin gertatu dena. Sakelako berrietan ia bertan irakur dezakezu».

Plataforman parte hartzen duten argialetxeak txikiak dira. "Nahiko alternatiboak dira. Ez daukate entrescritores.com bezalaka plataforma beren kabuz garatzeko ahalbiderik. Argialetxe txikientzat bestela eskura izango ez lituzketen autore berriak lortzeko espazioa da, bere marka saldu eta teknologia berriak nondik nora doazen jakiteko tokia».

Crowdsourcing-aren bidea lantzen du proiektuak. "Nire iritziaren bidez autore ezezagun bati nire babesa eskaintzen diot. 'Nire denbora eskaintzen dizut eta lana baloratzen'. Irakurleak bere lanaren esker ona jasoko du berak babestu duen liburuak argia ikusten duenean», adierazi du Idoia Sotok.

"Hainbeste jendek irakurri duen lana argitara emateak ba al du zentzurik?' galde dezake norbaitek. Bai, lana besteek gustukoa izan badute nik ere irakurri egin nahi dut».

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako liburutegien sare publikoarekin harremanetan jartzekoak dira. "Irakurle klubekin elkarlanean arituko gara irakurleak gehitzeko asmoz. Katalunian 30 klubekin ari gara eta hemen asmo bera dugu».

Euskaraz oihartzun handirik ez du izan oraingo plataformak. "Ez dugu oraindik ezagutarazi eta euskaraz idazten edo irakurtzen dutenek oraindik ez dute proiektuaren berri», argitu du. Web orria gaztelania hutsez dago orain. Euskaraz eta katalanez prestatzekoak dira.

Ereduak funtzionatzen badu, nazioartera zabaltzeko asmoa dute beste hizkuntza batzuetan. 140 liburu eta 9.000 erabiltzaile ditu orria bisitatzen dutenak. Gaztelaniazko idazlanen artean hainbat bitxikeria aurki daitezke, horien artean "El Quijote" kolonbieraz. Baita testigantza hunkigarriak ere. "Emakume batek iloba hirukiak izan zituen. Ospitalean egon ondoren bakarra bizi da. Aste haietako egunerokoa. Bere bilobaren bizirauteko borroka. Oso erreala da. Lotsaz erretiratu eta jendearen eskaerak ikusita berriz jarri du».

Lotura enpresari kaleko jendearen ezagutza emango dio plataformak. "Horrekin batera, sare sozial bat sortu daitekeen ikusi dugu. Irakurleen iritziaren bidez publikatutako liburuak lor daitezkeen, argialetxeen munduan zerbait egin daitekeen... Azken helburua entrescritores.com negozio propioa bilakatzea da, bere lantaldea izatea eta lanpostuak sortzea. Hori sekulakoa litzateke», esan du.